




Joseba Sarrionandiaren zinema paperak (1977-1980)

Edizioa: Josu Martinez

Saio eta Testigantza, 280

978-84-9172-445-2

2025 - 180 or. - 17 x 24 cm

20,00 €

1977tik 1980ra Joseba Sarrionandiak Zeruko Argia eta Anaitasuna aldizkarietan idatzitako zinema kritika eta komentarioen bilduma duzu hau.

Gaur egun arte aski ezezagunak izan arren (idazleak berak erdi ahantziak izateraino), testu arras interesgarriak dira euskal kultura zinematografikoarendako. Batetik, aitzindariak direlako: 50ko hamarkadan Koldo Mitxelenak Egan aldizkarian idatzitako kritiken ostean, Sarrionandiaren testuok dira zinemari buruz jarraikortasunez euskaraz idatzitako lehen kritika eta komentarioak. Eta bestetik, idatziak izan ziren garaiko kronika direlako. 1977 eta 1980 arteko sasoi hartan ezagutu ziren Hego Euskal Herrian urtetan zentsurak debekatuta egondako hainbat film, eta Sarrionandiak eztanda haren notario lanak egin zituen, astez aste, euskal prentsarentzat.

Buñuel, Kubrick, Chaplin, Bertolucci, Eisenstein, Pasolini, Bergman, Fassbinder, Woody Allen... Zinemaren historiako pelikula eta autore gako asko ageri dira Sarrionandiak hogeitaz inguru zituela idatzi zituen kritika eta komentarioetan, eta horrekin batera, gero bihurtuko zen idazlearen ezaugarri nagusiak ere aurkituko dituzu: erudizioa, umorea, kritikotasuna, eta poesia eta filosofiarako joera.



Josu Martinez

Josu Martinez (Bilbo, 1986) EHuko irakaslea eta zinemagilea da. NOR ikerketa taldeko kidea. Euskal zinemaz eta Euskal Herriko memoriaz bost liburu idatzi ditu, azkenak, *Irudiz eta euskaraz* (UEU, 2022) eta *Lezo Urreizteta: gudari de la uto-pía* (Pamiela, 2022). Bestalde, izen ezaguna da azken urteetako euskal zinemagintzan. Bere azken lanak, *Bizkarsoro* (2023) fikziozko film luzea eta *Mirande, film bat egiteko zirriborroa* (2023) dokumentala dira.



Joseba Sarrionandia

Joseba Sarrionandia (Iurreta, 1958) 1980tik aurrera sorterritik urrun bizi izan den idazlea, eta kartzelatik 1985ean ihes egin zuenetik urte asko ibili dena paradero ezezagunean. Ipuin, eleberr, poesia eta saiakera askoren autorea eta, 2021ean itzuli zenetik, literatura sormenaren alorrean jarraitzen du lanean. Liburu honetan gaztea zela idatzi zituen zinema kritikak dituzu eskura.

